



Osoko Bilkurak, 2019ko ekainaren 20an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**4.- KONTRATAZIO-MAHAIAREN ERATZEA ETA KIDEEEN IZENDAPENA.** - Ikusita Sektore Publikoa arautzen duen 9/2017 Legegilearen 320. artikulua ezarritakoa, Kontratazio Organua Udalbatzarra denerako, Kontratazio Mahaiaren osaera hau proposatzen du Alkateak:

Presidentea: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra edo eskuordetzen duen pertsona.

Lehen mahaikidea: Kontratazio saileko Administrazio Orokorreko Teknikaria.

Bigarren mahaikidea: Udal Idazkaria.

Hirugarren mahaikidea: Udal kontu-hartzailea.

Laugarren mahaikidea: Errenta Saileko Administrazio Bereziko Goi Mailako teknikaria.

Idazkaria: Kontratazio unitateko administraria.

Ordezkoa: Idazkaritzako administraria.

Besteak: Kasu bakoitzean gaien arabera beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie, ahotsa izango dute baina ez botorik bere jardueran.

Alkateak Kontratazio mallaren deialdia Alderdi guztiei bidaliko zaiela adierazten du, eta proposamena bozkatzea erabakitzen du:

Aldeko botoak: 17 (EH BILDU, EAJ-PNV, ELKARREKIN HERNANI PODEMOS/EZKER ANITZA-IU/EQUO BERDEAK, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK).

Horiek horrela, aho batez, gehiengo absolutoz, hau erabaki da:

**Lehena.-** Erabaki hau hartzen denetik, eta Kontratazio Organua Udalbatzarra denean, Kontratazio Mahaiaren osaera hau izango da:

Presidentea: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra edo eskuordetzen duen pertsona.

Lehen mahaikidea: Kontratazio saileko Administrazio Orokorreko Teknikaria.

Bigarren mahaikidea: Udal Idazkaria.

Hirugarren mahaikidea: Udal kontu-hartzailea.

Laugarren mahaikidea: Errenta Saileko Administrazio Bereziko Goi Mailako teknikaria.

Idazkaria: Kontratazio unitateko administraria.

Ordezkoa: Idazkaritzako administraria.

Besteak: Kasu bakoitzean gaien arabera beharrezkoak diren funtzionario edo aholkulariei deituko zaie, ahotsa izango dute baina ez botorik bere jardueran.

**Bigarrena.** Kontratazio Mahaiaren osakeraren berri ematea Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Hirugarrena.** Kontratazio Mahaiaren deialdi guztiak talde politiko guztiei bidaltzea.

Jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko bidaltzen dizut erabakia. Dena den, udalbatzarraren akta onartu gabe dagoela ohartarazten dizut.

Hernanin, 2019ko uztailaren 9an.

IDAZKARIORDEA,

